

LAKUAN BILERA, EDO NOLA BUKATU PAREKATZEAREKIN

2016ko LAN EGUTEGIA

Aldaketa txikiren bat gorabehera, 2015eko egutegiaren oso antzeko bat aurkeztu zuen Justizia Administrazio Zuzendaritzak 2015-11-26eko bileran. Harrigarria da: sailak aurrenekoz aurkezten du gure esparruko egutegiaren zirriborroa EAeko Administrazio Orokorrekoen egutegia zein den jakin gabe. Bileran argi esan bezala, LABek ez du onartzen egutegi hau eta ez du alegaziorik egingo; sindikatuen eskaerak aintzat ez hartzeaz gain, zirriborro hori ez baita behin betikoa eta baitliteke nobedaderen bat gertatzea.

Beste behin ere eskatu zuen LABek murrizketen aurreko egutegia. Dena den, jakina da Justizia Administrazio langileok euskal administrazio gainerako langileen ordu kopuru bera egin behar dugula urtean, IV. Akordioaren arabera.

Bolo-bolo dabil: 2016rako Eusko Jaurlaritzak proposatuko du ordu gutxiago duen egutegia, 1592 guztira baina lanera joan beharreko **1547 ordukoa**, alegia.

Dudarik ez Justizia Administrazio Zuzendaria zurrumurru horien jakitun dela; hala ere, lanean eman beharreko **1569,5 orduko** egutegia eskaintzen digu.

Administrazio autonomikoko langileen egutegia zertan geratuko den ezagutu aurretik justiziakoa aurkezteari nolabaiteko susmoa hartzen diogu. Jon Uriarteren esanetan, aurreratu du zirriborroa antzintasun egunak ugaritu direlako. Dionez, proposatzen duen testuan paragrafo bat erreserbatu du EAeko Administrazio Orokorreko egutegia arautuko duen dekretora sartu ahal izateko, hortaz, iruzurrik ezin omen da egin. Izan ere, LABek esana zion ez zela fio.

Ekin eta ekin: langile ezberdinak gara eta, gainera, aurpegiatzen digu Madrilek markatutakoaz aprobetxatu nahi dugula. Hori entzunda, LABek beste behin esan zion hori konpontzea baduela **HOMOLOGAZIOA** eskainiz, EJKo gainontzeko langileei egin den moduan. Marka da gero, Madrilek murrizketak ematen dituenean Lakuak bere burua zuritzen du esanez estatuko arauak behartzen duela. Orain, ordea, arau horrek ahalbidetzen duenean langile publiko guztiek antzintasunagatiko egunak izatea (opor egunak zein norbere kontuetarakoak) EJK ez ditu nahi eman. Horrek dakar, 2015ean behintzat, Administrazio Orokorreko langileek egun horiek ez izatea, Lakuari hala interesatzen zaiolako.

Bukatzeko, LAB Administrazio Orokorreko egutegiaren zain dago huraxe ezar diezagutela eskatu ahal izateko; lanean egon beharreko ordu kopuruari dagokienez eta baita ere baimenak emateko moduari dagokienez. Esaterako, jadanik ez dago obligaziorik oporraldia gutxienez bost eguneko multzotan hartzeko, nahiz eta justizian irizpide hori ezartzen jarraitzen duten; urte bateko egutegia eta hurrengokoa gainezartzea ez dago debekaturik; eta gure kalterako zerrenda luze bat gehiago.

AUZITEGI MEDIKUAK: JARRAITU BEHAR DUTE BORROKAN

Horrenbeste murrizketak eta gero baten batek pentsatzen bazuen sail honek ez zuela gu zur eta lur uzteko gaitasun gehiagorik oker zebilen. Auzitegi medikuekin egin nahi dutena lotsagabekeriarik handiena da.

Gogoan hartu oraingo gatazkak honako erreklamazio honetan daukala sorburua: auzitegi osagileak Osakidetzako gutxieneko mailara parekatzea, hots, Lakuaren parametroetan 27 mailan kokatzea.

Ezin sinesturik geratu ginen: Jon Uriarte dio ez duela ezagutzen eskaera hori. Ene! Ez da ba horixe sindikatu honek auzitegi medikuekin egindako mugimendu guztien oinarria? Eta horrez gain, negoziazio mahaian ere jorratu dugu sindikatuok gai hori; auzitegi osagileek beraiek agiriak igorri dituzte sailera, Erkoreka sailburuarekin elkarrizketatu dira...

Bileraren bezpera zuzendariak zirriborroa bidali zigun zeinaren bidez parekatzearen orde lanpostuen balorazio bat eskaintzen duen. Proposamenak jasotzen du AMEEko zuzendaria euskal administrazioaren eskalan goreneko mailan jartzea eta zuzendariordeak maila bat beherago. Osagile orokorrei eta adituei, aldiz, 26 maila esleitzen diete. Baina, kontuz, gero orokorrekoei kentzen baitiete adituei dagokien osagarria. Justiziako gainerako kidegoei ezarri ziguten ordainsari-tauletara eramanik 27-IIB mailari dagokio.

Mobilizazietan dabilzan auzitegi medikuek talde osoaren % 70 ordezkatzeko dute eta sekula ere ez dute eskatu esleipen askeko karguentzako lansari igoerarik. Nola egingo zuten kargu horiek administrazioak bere interesei begira aukeratuak badira. Zantzu guztien arabera, Justizia Sailak saritu nahi ditu esaten dutenak AMEEk inoiz baino hobeto funtzionatzen duela, agerikoa bada ere ez dela egia. AMEE ondo doalako frogak honako hauek dira, akaso?: Sailburuordetzak Gipuzkoara eraman zuen laborategi materialean gastatutako dirutza, laster erabiltzeko gai izango ez dena plantilako inork ez dakielako manieatzen eta sailak ez duelako nahi langile teknikorik kontratatu zeregin horretarako; edo inork eskatu gabe Gipuzkoarako propio asmatu duten guardia araua, albo batean utziz, esaterako, Bizkaian Europako zuzentzarauk urratzen direla (11 orduko gutxieneko atsedenaldia). Izan ere, guardiari dagokion disponibilitate zatian (21:00etatik 09:00etara) jardun behar baldin badute, hurrengo egunean behartzen dituzte mediku horiek lanaldi arrunta egitera; edo ondo doan beste bat ere, prestakuntza kontua: sailak konfiantzazko karguen eskuetan utzi nahi du prestakuntza antolatzea. Bada, horixe da hain zuzen ere auzitegi medikuen kexetako bat, AMEEko zuzendaritzak ez duela inoiz prestakuntza planik eratu. Jon Uriartek, gabezia horren erantzulei kontuak eskatu beharrean, ez ikusiarena egiten du eta dagokion zeregin bakarria prestakuntza horretarako dirurik dagoen ala ez ebatzea dela dio. Hortaz, atzamarrez aukeratzen dituzte zuzendaritzakoak, ez diete exijitzen prestakuntza planik eta horrela arazorik ez: ez dago zer ordaindu.

Bide batez eta beste batez eskatu izan du LABek Justizia Administrazioako gainerako langileekin egin zen eran jokatzeko ere auzitegi osagileekin: kidego bereko langile guztiak ordainsari-maila berean parekatzea; horrek, baina, ez du eragozten legeak agindutako osagarriak errespetatzea, KEBEZEetako osagarria kasu.

Auzitegi medikuentzako diru proposamena zehatza: gutxieneko maila bera guztientzat (27-IIB edo bestela esanda, Osakidetzako gutxieneko maila), mediku orokorrekin hasi eta zuzendariarekin bukatu. Hortik aurrera ezarri beharko lirateke funtzio bakoitzari dagokio osagarriak, aditua, zerbitziburua, laborategiburua, zuzendariordea edo zuzendaria izateagatik.

Zuzendaria EJKo maila gorenean jartzea ez da parekatzea eta ez dauka zerikusirik IV. Akordioak arautzen duen berdintzearekin.

Aurrean esandako guztiak direla eta, LABek ez ditu onartzen zirriborroaren edukiak. Hori horrela, auzitegiko osagileekin adostutako proposamena egingo dugu.

Hala eta guztiz ere, Jon Uriarteren proposamenari alde ona ikusten diogu: seguruenera balioko du mediku gehiago biltzeko protestara; ez baita gauza makala parekatzea eskatzen duen errebindikazioa erabiltzea konfiantzazko kargudunei mesede egiteko.

ASKOTARIKOAK

Hemen zuzendari hau kargura heldu zen unetik sindikatuok egiten dizkiogun eskaerak batzen dira. Hauek dira, besteak beste, LABek eskatutakoak:

- Malgutasuna ordutegian lanaldi murriztuetan, dagokien ehunekoan;
- Euskara ikastaroetarako eredu berria non ikasi nahi duen orok aukera izango duen, liberazioa barne;
- Bilboko guardia epaitegiko instalazioak berritea. Gezurra badirudi ere, epaileen eskariak artatu nahi zituzten hor orduak eta orduak eman behar dituzten langileei jakinarazi gabe. Orain diote obra ez dutela berehala hasiko, beraz, sindikatuok aprobeztatuko dugu daude beharizan eta lehentasunak planteatzeko;
- Lan-poltsetako ordena errespetatu beti. Arauan egin dituzten aldaketekin lanpostu-uzteak eta izendapenak gero eta zoriaren menpekoago dira. Azken leku-aldatze lehiaketaren ondorengo kudeatketaren penagarria izan da. Justizia Administrazioak ondo egin izan balu –zerrendeetako ordena errespetatuz- eskarmentua duten langileak izendatuko zituzkeen 2015eko derrigortasuneko plazetan.

Hitz gutxitan, sail honekin ez dago negoziatzeko modurik, presioa baino ez dute ulertzen. Hasiera-hasieratik -2013ko udaberria- Jon Uriartek behar gintuen mobilizatzeraz EAEko Administrazio Orokorreko egutegiaren orduak gainditzen zituen egutegi bat ezarri nahi baitzigun. Horrek IV. Akordioa urratzea zekarren eta horri beste urraketa ugari gehitzen zaizkio, hala nola, lizentziak eta baimenak kudeatzerakoan irizpide desberdinak.